

BILBOKO
HIRUHILEKO
KOIUNTURA
TXOSTENA
2023

Bilbao Observatorio

LABURPENA

2023ko lehen seihiilekoa ixtean balantzean emaitza positiboak nagusitu dira, eta, bestea beste, azpimarratu behar dira lortutako enplegu bolumen garrantzitsu eta nabarmena eta langabezia pixkanaka murriztea, inflazioaren ibilbideari eustea -dagoeneko % 2 inguruan dago- eta 2023. urteko hazkunde ekonomikoaren espektatibak nolabait gorantz berrikustea - lehen seihiilekoaren bilakaera hobea ikusita, esperotakoarekin erkatuta-. Bestalde, alderdi negatiboek adierazten duten interes tasen agertokia dirudienaz nagusiki gorantzkoa izango da -erreferentziatzeko interes tasa dagoeneko % 4,25ean dago (Europako Banku Zentrala)-, jardueraren dezelerazio potentziala adierazten duten adierazleekin batera.

2023ko lehen seihiilekoa espero baino positiboagoa izan da, bereziki lan merkatuan

Argudio horietako batzuek, eta horrekin batera ekonomia bakoitzaren erresilientzia xehetasunez irakurritz neurri handi batean partekatua den inflazio agertokian, justifikatu egin dute hazkunde ekonomikoaren espektatibak berrikustea. Hain zuzen ere, Nazioarteko Diru Funtsak (uztaila, 2023) bi hamarren eta hamarren bateko doikuntzak egin ditu AEB eta Eurogunerako, eta bereziki Espainia estatuaren kasuko gorantzko berrikuspene nabarmendu behar da¹ (% 1,5etik % 2,5era).

2023. urterako hazkunde ekonomikoaren espektatibak gorantz berrikustea justifikatu du

Argudio horiek EAEko ekonomiaren gaur egungo zein aurreikusitako bilakaerara ere ekar daitezke; hala, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak (Eusko Jaurilaritza) ekonomia hazkundearen aurreikuspena ekainean berrikusi zuen (+% 1,6, hamarren 1 gehiago), eta dagoeneko adierazi du uda amaieran berriz ere berrikus dezakeela. Hala, lehen eta bigarren hiruhilekoan (aurrerapena) izandako hazkunde ekonomikoak jardun ona berretsi du (+% 2,3 eta +% 1,6, urte arteko tasan, BPG) eta bultzada horren nolabaiteko dezelerazio profila. Baina gertaera benetan argia lan merkatuaren emaitza positiboa da; lanaldi osoko baliokidetasunean milioi bat lanpostu baino gehiagoko kopurua gainditu du.

EAEko BPG % 1,6 (edo gehiago) haziko da

Agertoki horretan, ekaineko Gizarte Segurantzaren afiliazio datuek erakutsi dute Bilbon Gizarte Segurantzara afiliatutako 184.966 pertsona zeudela (+3.524 alderatuz gero 2022ko ekainarekin); emaitza horrek hiribilduko enpleguaren dinamismoa berretsi du, maximo historikoetara heldu baita.

Ekainean Bilbo 184.966 pertsona afiliatura iritsi da

Bultzada horrek kontratazioaren bilakaera argi uzten du; urteko lehen seihiilekoan hiribilduan bizi diren pertsonen guztira 53.479 kontratu berri sinatu dituzte, eta horietatik % 39,2 mugagabeak dira. Ratioak gorantzko profila mantendu du (2022ko % 29,7tik % 43,5era 2023ko bigarren hiruhilekoan); hortaz, aurreikusten da sinatutako kontratuak, orotara, beherantzko profila izatea, pixkanaka, pertsona afiliatuen bolumen osoa finkatzen den bitartean. Horrez gain, adierazi behar da modalitate mugagabearen ratioaren bilakaerak baldintzatu egingo duela kontratu berrien etorkizuneko sekuentzia, eta beherantzko profila aurreikusten da.

Hiribilduan bizi diren pertsonen sinatutako 10 kontratu berrietatik ia lau mugagabeak dira (lehen seihiilekoa)

Emaitza hori bat dator erregistratutako langabeziaren beherantzko profilarekin; ekaina ixtean 20.658 pertsonakoa izan da; azken 14 urteetan ez da hain zifra baxurik erregistratu (2009ko ekainean 20.437). Hiruhileko arteko beherakada % 3,0koa izan da, baina txikiagoa da emakumeen artean (-% 2,0) gizonen artean baino (-% 4,3); oro har, adin taldeen artean partekatua da, bereziki tarterik gazteenean (16-24 urte, -% 7,7).

Erregistratutako langabezia (20.658 pertsona) azken 14 urteetako baxuena da

2023ko bigarren hiruhilekoan BAk kalkulatu du Bilbon bizi den populazio landuna 146,2 mila pertsonakoa dela, % 3,2ko hiruhileko arteko hazkundearekin. Bestalde, enplegu tasa finkatu

¹ Bat dator ELGAK (+% 2,1), Espainiako Bankuak (+% 2,3), BBVAk (+% 2,4) edo Bankinterrek (+% 2,1) egindakoekin, besteak beste.

egin da (% 50,9) eta langabezia tasak behera egiten jarraitzen du % 7,9ra arte; zifra historikoki baxua da.

Jarduera ekonomikoaren emaitzek hiribilduak izandako berreskurapena berretsi dute. Merkataritzaren sektoreak 2023ko lehen hiruhilekoan lortutako salmentek hobekuntzaren bideari eutsi diote (+% 7,6 eta +% 1,5, urte arteko tasa, prezio arruntak eta jarraituak), horretarako oinarritzat hartuz ibilgailuen salmenta eta konponketa segmentuaren (+% 13,7 eta +% 7,0) eta txikizkako merkataritza segmentuaren emaitzak (+% 10,6 eta +% 4,5); handizkako segmentuan izandako moteltzea orekatu dute (+% 4,9 eta -% 1,6). Azkenik, sektore enpleguan hobekuntza erritmoa mantendu da (+% 0,7), eta hobera egiten duen zortzi hiruhileko bete dira.

Ibilgailuei eta txikizkako merkataritzari lotutako salmentek gora egin dute

Kontsumoaren bilakaerari lotutako datu eguneratuak Bizkaiko saltoki handietako salmentek ematen dituzte; ibilbide positiboa erregistratu dute (+% 7,8 eta +% 0,2, urte arteko tasa, prezio arruntak eta jarraituak). Emaitza hauekin batera enpleguaren igoera ere aipatu behar da (+% 2,8); hobera egiten ondoz ondoko bederatzigarren hiruhilekoa da.

Merkataritzaren sektorean enpleguaren hazkundea jarraitua eta garrantzitsua izan da

Lurraldean ibilgailu berrien salmentak nabarmen egin du gora urteko bigarren hiruhilekoan (3.524 unitate), eta gainditu egin ditu lehen hiruhilekoko (+% 12,6) eta aurreko urteko (+% 7,9) erregistroak, baina oraindik ez da iritsi 2019ko aldi berdinean erregistratutako zifretara (-% 36,7). Hala, lehen seiuhilekoaren balantzea oso positiboa da (6.653 unitate, +% 18,2, urte arteko tasan); horrek urteko bigarren zatian berretsiko den joera aldaketa potentziala adierazten du.

Ibilgailu berrien salmentek gora egin dute (+% 18,2, urte artean, lehen seiuhilekoan)

Bigarren hiruhilekoan hiribilduko hotelen jarduerak indartu egin du urte hasiera positiboa; bigarren hiruhileko batean bidaiarien sarreretan (301.909) eta ostatu gauetan (586.478) zifrarik altuenak lortu dira eta urte arteko hazkunde garrantzitsuak izan dira (+% 9,1 eta +% 10,1, hurrenez hurren) -2022ko bigarren hiruhilekoaren arabera kalkulatu dira, eta horrek ere errekorra markatu zuen-. Hala, hiribilduak oso lehen seiuhileko positiboa itxi du, milioi erdi bidaiari baino gehiagoren sarrerarekin (521.089) eta ia milioi bat ostatu gaurekin (994.607), hiribilduan hotelen jardueran zifra historikoak izateko uda hasi aurretik.

Milioi erdi bidaiari eta milioi bat ostatu gau baino gehiago (lehen seiuhilekoan)

Bigarren hiruhilekoan, Loiuko aireportuan normaltasuna finkatu da 1.706.727 bidaiarirekin (+% 18,4 eta +% 3,2, 2022 eta 2019arekin erkatuta); zifra horiei esker berreskurapena berretsi da, oinarritzat hartuz estatuko zein nazioarteko dinamismoa (+% 13,3 eta +% 26,9, urte artean). Hala, lehen seiuhilekoaren balantzea 2.826.775 bidaiarikoa da; hala, hori ikusita badirudi 2023. urtea errekor urtea izango dela, oso positibotzat aurreikusten den udaren atarian.

Loiuk 2,83 milioi bidaiari izan ditu lehen seiuhilekoan

Bilboko Portuak guztira 16,5 milioi tona garraiatu ditu urteko lehen seiuhilekoan, urte arteko igoerarekin (+% 2,8); hala, estatuko bosgarren porturik garrantzitsuena da.

Portuko trafikoak hobera egiten jarraitzen du (+% 2,8 urte artean, lehen seiuhilekoan)

Lurraldeko industria jarduerak dezelerazio profila mantendu du, % 0,2ko hazkunde txikiarekin (apiril-maiatza); pandemia bukatu zenetik erregistratutako aurrerapenik txikiena da. Emaitzak bat datoz Europa ingurunean lortutako emaitzekin; industria jardueraren hazkunde profila progresiboki lauagoa da, eskaria eta eskaeren sarrera moteltzeak baldintzatuta.

Industria jarduerak moteltzen jarraitzen du

Bitartean, 2023ko lehen hiruhilekora arte Bizkaiko merkatuko zerbitzuen salmentek hobera egiten duen ondoz ondoko zortzigarren hiruhilekoa izan zuten (+% 5,2 eta +% 5,8, urte arteko tasa, prezio arruntak eta jarraituak). Oro har, jarduera integratu guztiek hobera egin

Merkatuko zerbitzuen jarduerak berreskurapena finkatzen jarraitzen du

dute, neurri handiago edo txikiagoan, eta sektore enplegua da gelditu den adierazle bakarra (-% 0,1).

2023ko lehen hiruhilekoan Bizkaiko jarduera ekonomikoak hobera egiten jarraitu du, % 2,2 eta % 0,4ko urte arteko eta hiruhileko arteko hazkundeekin, hurrenez hurren. Emaita horietan 2022. urteko erregistroekin erkatuta nolabaiteko dezelerazioa ikusi arren, hobekuntza nabarmena ageri da hasierako aurreikuspenekin erkatuta; horrek 2023. urterako aurreikusitako hazkunde ekonomiko gorantz berrikusi izana justifikatuko luke. Bigarren hiruhilekorako aurrerapen datuak (EAEko erreferentzia) hazkunde berriak iragarri ditu (+% 1,6 eta +% 0,5, bi tasetan), urteko lehen seiuhilekoaren dinamismoa berretsiz eta joerak urteko bigarren zatian jarraitzearen esperoan.

Bizkaiko BPGa % 2,2 hazi da lehen hiruhilekoan

Laburbilduz: 2023ko lehen seiuhilekoaren balantzean urteko lehen seiuhilekoaren itxiera datuak jaso dira, lan merkatuari buruzkoak; argi eta garbi, oso positiboak dira. Hiribilduaren inguruan bezala (Espainia, EAE zein Bizkaia izan), urte hau Gizarte Segurantzaren afiliazioetan maximo historikoak lortzeagatik nabarmenduko da; aldi berean, langabezia erregistratuak zein langabezia tasak behera egin dute, duela 14 urteko mailetara itzuliz.

2023ko lehen seiuhilekoa oso positiboa izan da enplegurako, baina...

Bestalde, merkataritza, turismo edo merkatuko zerbitzuen jarduerak jarraitutasun profila izan dute berreskurapenean; industria jarduera, berriz, moteldu egin da. Horren haritik, zuhurtzia eragiten duten alderdiak honako hauek dira: urteko aurreikuspenek adieraztea BPGk % 2ko hazkundera gaitutuko duela, baina egia da hobekuntza profila moteldu egin dela (hazkunde tasa txikiagoekin, hiruhilekoz hiruhileko).

... argi-ilunekin, eta "lauagoa" izango dela aurreikusi da

Hala ere, adierazi behar da inguruko ekonomien hazkunde espektatibak (Alemania edo Frantzia, -%0,3 eta +%0,8, 2023. urterako) askoz txarragoak direla eta inflazio agertokiak zailagoak direla (+% 6,8 eta +% 5,3, Espainiako +%1,6rekin erkatuta, 2023ko ekaina); interes tasak gorantz berrikustea baldintzatzen ari da. Inflazioa kontrolatzeak ekonomia handien hazkundera ez izoztea izango da erronka (Euroguneari dagokionez traktore betebeharrarekin) eta epe ertainean emaitza ekonomikoek hobera egiten jarraitzea ez baldintzatzea.

TESTUINGURUA

Munduko ekonomia

Nazioarteko Diru Funtsak hazkunde ekonomikoko aurreikuspenak eguneratu ditu (uztaila) eta aurreikusi du mundu mailako ekonomia % 3,0 haziko dela 2023an eta 2024an; hala, 2023. urteari dagokion aurreko proiektzioa (apirila) bi hamartarretan hobetu du. Horren haritik, erakundeak jarduera ekonomikoaren erresilientzia nabarmendu du, gaur egungo koiuntura konplexua izan arren, eta lan merkatuen ezohiko sendotasuna aipatu du, prezioen hazkundearen nolabaiteko moderazioarekin batera, hobekuntza hori errazteko faktore modura. Hala ere, mundu mailako jarduera ekonomikoaren nolabaiteko dezelerazioa aipatu da, eta 2023-2024rako espero den hazkundea (+% 3,0) 2022an erregistratutakoa baino (+% 3,5) baxuagoa da, eta moderazio profilarekin aldi historiko gertatu berriarekin erkatuta (2000-2019 batezbestekoa; +% 3,8).

Munduko ekonomia % 3,0
haziko da 2023an eta
2024an

Hazkunde ekonomikoko aurreikuspenetan aplikatutako hobekuntza (2023) partekatu egiten dute ekonomia aurreratuak (+% 1,5) eta hazten eta garatzen ari diren ekonomiek (+% 4,0), baina nabarmendu behar da dezelerazio profila ekonomia aurreratuetan biltzen dela, eta 2022an izandakoarekin erkatuta (+% 2,7) hazkundea apaldu egin dutela. Hala, Eurogunerako iragarritako hazkunde txikia nabarmendu behar da² (+% 0,9, 2023an), Alemaniako ekonomiaren uzkurdua oinarritzat hartuz (-% 0,3), Frantziako (+%0,8) eta Italiako (+% 1,1) aurrerapen arinarekin; Espainiak, berriz, Euroguneko hazkunderik handiena izango luke (+% 2,5), horretarako, batez ere, turismo jardueraren bultzada baliatuz. Estatu Batuetako ekonomiak bikoiztu egingo luke Eurogunerako esperotako hazkundea (+% 1,8 eta +% 0,9).

Hazkunde ekonomikoan (BPG) egindako aurreikuspenak, data hauetan egindakoak

Urte arteko aldakuntza tasa, %

	Urt-23		Apir-23		Uzt-23		
	2023	2024	2023	2024	2022	2023	2024
MUNDUKO BPG	2,9	3,1	2,8	3,0	3,5	3,0	3,0
Ekon. aurreratuak	1,2	1,4	1,3	1,4	2,7	1,5	1,4
Ameriketako Estatu Batuak	1,4	1,0	1,6	1,1	2,1	1,8	1,0
Eurogunea	0,7	1,6	0,8	1,4	3,5	0,9	1,5
Alemania	0,1	1,4	-0,1	1,1	1,8	-0,3	1,3
Frantzia	0,7	1,6	0,7	1,3	2,5	0,8	1,3
Italia	0,6	0,9	0,7	0,8	3,7	1,1	0,9
Espainia	1,1	2,4	1,5	2,0	5,5	2,5	2,0
Hazten/Garatzen	4,0	4,2	3,9	4,2	4,0	4,0	4,1
Txina	5,2	4,5	5,2	4,5	3,0	5,2	4,5
India	6,1	6,8	5,9	6,3	7,2	6,1	6,3
Brasil	1,2	1,5	0,9	1,5	2,9	2,1	1,2
Errusia	0,3	2,1	0,7	1,3	-2,1	1,5	1,3

Iturria: Nazioarteko Diru Funtsa (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

² PMI indizeak (Erosketa Kudeatzaileen Indizea) manufaktura sektorearen uzkurdua adierazi du, eskaeretan 2009az geroztik beherakadarik handiena erregistratu baitu, eta indizearen balioa 50 puntu baino txikiagoa izan da -puntu horrek bereizten baititu hedapena eta uzkurdua-; hala, Euroguneko ekonomiaren balizko atzeraldiaren beldurra gora egin du uzkurdua arineko bi hiruhileko izan eta gero (-% 0,1 eta % 0,0, hiruhileko arteko tasa, 2022ko laugarren hiruhilekoan eta 2023ko lehenengoan); bigarren hiruhilekoaren aurrerapenak hobekuntza arina iragarri du (+% 0,3).

Hazten eta garatzen ari diren ekonomietarako aurreikuspenek hazkunde sendoa dute (+%4,0 eta +%4,1, 2023 eta 2024. urteetarako), baina desberdintasun handiak daude herrialdeen artean; Txina (+%5,2 eta +%4,5) eta Indiako (+%6,1 eta +%6,3) dinamismoa nabarmendu behar da, eta profil ez horren dinamikoa daukate Brasilek (+%2,1 eta +%1,2) eta Errusiak (+%1,5 eta +%1,3); 2022an izandako atzerapenen ondoren (-%2,1) berriz haz daiteke.

Etkeen konfiantza eta aurrezpena

	2019	2020	2021	2022	2022		2023	
					III	IV	I	II
Etkeen konfiantza¹ (-100;+100)								
UE-27	-6,0	-15,2	-8,5	-23,0	-28,0	-25,8	-21,1	-18,1
Espainia	-6,4	-23,6	-12,9	-26,5	-32,7	-28,1	-22,8	-19,2
Etkeen aurrezpena² (gordailuak); Δ % urte artekoa	5,6	7,8	4,7	4,5	5,4	4,5	0,7	-0,5

1. Hileko datuen hiru hilekoko batezbesteko datua eta hiru hilekoko datuen urteko batezbesteko datua. 2. Hiru hilekoko datua, hiru hileko bakoitzeko azken hilabeteko itxierarena eta urteko datua, urte bakoitzeko abenduari dagokiona.

Iturria: Eurostat eta Espainiako Bankua

Europako eta Espainiako etkeen konfiantza oraindik inflazio agertokiaren eta horren ondorioen eraginpean dago. Duela urtebete baino gehiagotik hasieran aurreikusitakoa baino ibilbide tinkoagoa finkatzen ari da, eta horrek justifikatu du erreferentziazko interes tasak etengabe igotzea (Europako Banku Zentrala eta, oro har, entitate arduradun guztiak).

Etxeak (EB-27 eta Espainia) ezkortasunean mantentzen dira

Agertoki horretan, 2023ko bigarren hiru hilekoan EB-27 (-18,1) eta Espainiako (-19,2) etxeak ezkortasunean mantendu dira eta 2022ko hirugarren hiru hilekoan erregistratutako daturik okerrak hobetzeko joera arin eta jarraitua ageri da. Hobekuntza progresioaren jarraitutasuna oraindik ere inflazioari eustearen ondorioaren baldintzapean dago: batetik, kurba menderatzea lortu eta helburuko atalasea (%2) gerturatuz gero -2024ra arte atzeratu da- eta, bestetik, eraginak berreskurapen ekonomikoko sekuentzia (hozteko arriskua) desegituratzen ez duen neurrian, epe ertain edo luzeko eraginarekin (hazkunde ekonomikoa eta enplegua galtzea).

Hala ere, Espainiako etheen aurrezpen tasak behera egin du (-% 0,5) 2020 eta 2022 artean erregistratutako igoera handiaren ondoren -% 4-7 inguruko hazkunde tasarekin-, 2023an (lehen hiru hilekoan) hasi zena moderazio argiarekin (+%0,7). Prezioen igoeraren eragina argi ikusten da emaitza horretan, eta etxeetako aurrezpen gaitasunean ere eragina dauka.

EAEko ekonomia

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak (ekaina) arinki hobetu ditu³ 2023. urterako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak (+% 1,6). Goranzko zuzenketa hori lehen eta bigarren hiruhilekoetan erregistratutako dinamismo handiagoak justifikatu du (+%2,3 eta +%1,6-aurrerapena, urte arteko tasan, Eustat), aurreikusitako kalkuluak gainditu baititu eta 2023ko estimazio globala birkonfiguratu baitu.

EAEko hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenek hobera egin dute

Hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenek hobera egiteak (2023) oinarritzat hartu du barne eskariaren ekarpena (+%1,9), etheen kontsumo erresilientziarekin batera (+%1,2), eutsi egin baitio nahiz eta prezioek gora egin eta inbertsioa dinamikoa izan arren (FBC, +% 2,8). Sektorearen bilakaerak zerbitzuen sektorea jarri du EAEko ekonomia jardueraren traktore modura (+% 2,0); industriak eta energiak (+%1,1) eta eraikuntzak (+% 0,9) dinamismo txikiagoa agertu dute eta lehen sektoreak atzera egin du (-% 1,9). Hala, moneta politikaren balizko inpaktua (negatiboa) aintzat hartu behar da -erreferentziazko interes tasak igotzea-, horrek jarduera ekonomikoa hoztea eragin dezakeelako.

Euskadi. Agertoki makroekonomikoa

	2022	2023bb				Urte arteko aldakuntza tasa, %	
		I	II	III	IV	2023bb	2024bb
BPG	4,4	2,3	1,3	1,6	1,2	1,6	2,1
Etxeetako kontsumoa	3,0	1,7	0,0	1,9	1,2	1,2	1,8
Kontsumo publikoa	-0,4	2,4	4,9	2,1	0,6	2,5	1,4
Inbertsioa (FBC)	4,4	1,6	2,3	5,3	2,2	2,8	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,7	1,8	1,4	2,8	1,3	1,9	2,0
Kanpo saldoaren ekarpena	1,7	0,5	-0,2	-1,3	-0,1	-0,3	0,0
Lehen sektorea	0,8	7,4	-6,0	-11,1	4,0	-1,9	0,8
Industria eta energia	4,6	1,1	0,0	2,8	0,6	1,1	1,8
Eraikuntza	2,0	0,9	1,7	0,8	0,3	0,9	1,6
Zerbitzuak	4,7	2,9	2,1	1,6	1,6	2,0	2,5

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2023ko ekaina)

EAEko ekonomiaren termometroak⁴ EAEko hazkunde ekonomikoaren moderazioa agertu du; 2023ko martxotik hazkunde balio leunetan dago (84,6 puntu, 2023ko ekaina). Eraitza hau hazkunde maila normalizatuagoetara itzultzea bezala interpretatzen da, 2021-2022 biurtekoan (pandemiaren ondoren) izandako dinamismo nabarmenaren ondoren, 100 puntuak gainditu zituzten indize balioekin. EAEko enpresek espektatibak⁵ (2023ko hirugarren hiruhilekoan) moteldu egin dira (49,0 puntu), okerrera egin dutelako fakturazio espektatibek (-7,8 puntu), eskaerek (-7,5 puntu), jarduerak (-2,4 puntu) eta prezioek (-4,9 puntu), baina eutsi egin zaie inbertsioari lotutako espektatibei (-0,8 puntu), errentagarritasunari (+0,9 puntu) eta enpleguari (+2,0 puntu).

EAEko ekonomia hazkunde balio leunetan dago

EAEko enpresen espektatibak jaitsi egin dira

³ Beste erakunde batzuetatik egindako berrikuspenekin bat dator, esaterako BBVA Research (Eskualde behatokia, 2023ko ekaina), EAEko ekonomiaren hazkunde ekonomikoaren aurreikuspena % 2,0ra handitu baitu 2023. urterako.

⁴ Erreferentziazko unearen egoeraren adierazlea: hazkunde tinkoa (100 eta gehiago), leuna (50-100) eta beherapena (50etik behera).


⁵ Enpresa sentibilitateari lotutako adierazlea, parte hartu duten 215 enpresetan oinarrituz.

EAEko ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoa



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila.

EAEko enpresen espektatibak



Iturria: Enpresen konfiantza. Laboral Kutxa

EAEko etheen konfiantzak hobera egin du bigarren hiruhilekoan, 2022an erregistratutako ezkortasuna leunduz, eta neutraltasunetik gertuko balioetara itzuliz (-6,7 puntu); berreskurapena urteko bigarren seiuhilekoan indartzea espero da. Hala, aurrezpenari lotutako espektatibak berriz ere positiboak dira, eta langabeziaren bilakaerari dagokionez erregistratutako hobekuntza nabarmendu behar da. Hala ere, EAEko etxeak oraindik ere ezkorak dira ekonomia orokorraren zein etxeko ekonomiaren bilakaerari dagokionez, eta azken urteetan baino pixka bat altuagoa den prezioen atalasea finkatzeak (eta ez da espero aldatzea) eta finantzaketaren kostuaren igoeraren inpaktuak baldintzatuta daude.

Ezkontasun txikiagoa
EAEko etxeetan

EAEko etheen konfiantza

					2022		2023	
	2019	2020	2021	2022	III	IV	I	II
Etheen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-2,4	-22,0	-6,3	-11,0	-21,8	-22,9	-9,5	-6,7

Iturria: Euskal kontsumitzaileen konfiantza. Laboral Kutxa

Prezioak eta inflazioa

Estatuko KPI Orokorraren urte arteko hazkundera ekainean % 1,9koa izan da, % 2 baino gutxiago; duela bi urte baino gehiagotik ez da horrelakorik ikusi (2021eko martxoa). Hala, prezioen igoera ibilbidea joera normalizatuago batera itzuli da, % 10eko langa gainditzera iritsi diren hazkunde tasetatik urrunduz. Hala, KPI Orokorraren urte arteko hazkundera ekainean % 1,9ra arte jaitsi da estatuan eta % 2,3ra Bizkaian eta EAEn, moderazio joera partekatuekin.

KPI Orokorra hazkunde maila normalizatuagoetara itzuli da (% 2 ingurukoa)

Prezioen hazkunde erritmoa moteldu izana energia eta erregai produktuen prezioetan izandako doikuntzari zor zaio, nabarmen egin baitute atzera aurreko urteko mailarekin erkatuta ⁶ (-% 24,9 eta -% 18,0, hurrenez hurren, estatuko erreferentzia). Horrez gain, elikagaien prezioen igoeran izandako nolabaiteko moderazioa nabarmendu behar da (+% 10,3), ondoko ondoko laugarren hilabetez garestitze erritmoa moteldu egin baita, baina oraindik maila altuetan dago. Horren haritik, aipatu behar da Espainiako Gobernuak onartutako "inflazioaren aurkako" neurriak luzatu egin direla⁷ (oinarrizko zenbait elikagairen BEZa murriztu eta/edo salbuestea), nahiz eta bereziki elikagaien prezioen joerari erasaten dioten beste faktore desorekatzaile batzuk gehitu -esaterako, lehortea-.

KPIa Espainian, EAEn eta Bizkaian

	KPI Orokorra			Azpiko KPI ¹	
	Espainia	EAE	Bizkaia	Espainia	EAE
2022ko ekaina	10,2	9,6	10,0	5,5	5,4
2022ko uztaila	10,8	10,5	10,8	6,1	6,2
2022ko abuztua	10,5	10,3	10,4	6,4	6,4
2022ko iraila	8,9	8,5	8,8	6,2	6,1
2022ko urria	7,3	6,9	7,1	6,2	5,9
2022ko azaroa	6,8	6,5	6,6	6,3	6,1
2022ko abendua	5,7	5,4	5,5	7,0	6,7
2023ko urtarrila	5,9	5,6	5,6	7,5	7,3
2023ko otsaila	6,0	5,8	5,9	7,6	7,4
2023ko martxoa	3,3	3,3	3,2	7,5	7,4
2023ko apirila	4,1	4,2	4,2	6,6	6,8
2023ko maiatza	3,2	3,4	3,4	6,1	6,4
2023ko ekaina	1,9	2,3	2,3	5,9	6,2

1. Prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabe. Ez dago Bizkairako eskuragarri.
Iturria: EIN

Azpiko inflazioak ere⁸ nolabaiteko moteltzea agertu du, baina oraindik indize orokorrean erregistratutakoa baino maila askoz handiagoetan mantentzen da. Izan ere, bigarren hiruhilekoa ixtean (ekaina) Azpiko KPIren hazkundeak hirukoiztu egin du KPI Orokorrak erregistratutakoa (+% 5,9 eta +% 1,9, urte arteko tasetan); orain arte erregistratutako alderik handiena da. Aisialdi eta kultura multzoko produktuei lotutako prezioetan izandako igoerak

Baina Azpiko KPI oraindik kezka iturri da; indize orokorra hirukoiztu du

⁶ Energia produktuen eta erregaien prezioetan igoera handia izan zuen ekaineko hilabete batekin (2022) konparatzen da (+% 40,8 eta +% 40,7, hurrenez hurren, urte arteko tasan).


⁷ 2023ko abenduaren 31ra arte, betiere azpiko inflazioaren urte arteko tasa % 5,5 baino handiagoa bada.

Prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabe.

(+% 5,2) baldintzatu egin du bilakaera hori eta, zehazki, pakete turistikoaren prezioetan, urte arteko igoera nabarmena izan baitute (+% 23,6). KPI Orokorra % 2 inguruan finkatzea eta Azpiko KPI murrizten jarraitzea izango da erronka.

KPI Orokorra eta Azpiko KPI EAEn*

Urte arteko aldakuntza tasa, %



*Ez dago Bizkaiko Azpiko KPIri buruzko informaziorik.
Iturria: EIN

Hala ere, prezioen hazkundearen moderazio hori soilik partzialki partekatzen dute inguruko ekonomiek; Espainia-EAE-Bizkaiko lehiakortasun posizio hobea nabarmendu behar da, KPI Orokorraren zein Azpiko KPIren igoerak Eurogunekoak baino txikiagoak baitira (+% 5,5 eta +% 6,8) eta Alemaniako (+%6,8 eta +%7,4) edo Italiako (+%6,7 eta +%6,1) erregistro handietatik urrun; % 2ko inflazio helburua gainditzen jarraitzen dute. Jokabide okerrago hori gailendu denez, erreferentziazko interes tasen igoerari eutsi egingo zaio (Europako Banku Zentrala)⁹; historikoki altuak diren mailetan daude.

Lehiakortasun posizio
hobea inguruko
ekonomiekin erkatuta

EB-27ko KPI harmonizatua eta Europako ekonomiak. 2023ko ekaina

Urte arteko aldakuntza tasa, %

	KPI Orokorra ¹	Azpiko KPI ²
Eurogunea	5,5	6,8
Alemania	6,8	7,4
Frantzia	5,3	6,2
Espainia	1,6	5,5
Italia	6,7	6,1
Herbehereak	6,4	8,3
Danimarka	2,4	5,3
Suedia	6,3	8,1
EB-27	6,4	7,7

1. HICP - KPI Orokorr harmonizatua; 2. HICP - Prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabeko KPIa
Iturria: Eurostat

⁹ % 4,25ean (EBZ) eta % 5,25ean (Fed) daude.

EAEko BPG

EAEko ekonomia hazi egin zen 2023ko lehen hiruhilekoan, eta hasierako aurreikuspenak hobetu zituen¹⁰; urte arteko eta hiruhileko arteko hazkundera % 2,3 eta % 0,5 izan da, hurrenez hurren. Horrez gain, bigarren hiruhilekoaren aurrerapen datuek EAEko ekonomiaren dinamismoa finkatu dute (+% 1,6 eta +% 0,5, bi tasetan, hurrenez hurren); hala, oso seihileko positiboa itxi dute eta, urtearen bigarren zatia bilakaera ikusteke dagoen arren, EAEn 2023. urtea % 2 inguru haztea espero da.

Lehen seihilekoan EAEko ekonomiak 2023. urterako hazkundera eutsiko dio

Urteko lehen seihilekoaren ibilbideak jardura ekonomiaren berreskurapena finkatu du, hazkunde tasa normalizatuagoetara itzuli baita (2019an erregistratutakoen parekoak) pandemiaren eraginak (2020-2021) eta irteera faseak (2022) EAEko ekonomiaren hazkunde sekuentziara ekarritako distorsioaren ostean ("tontorrak").

EAEko BPG



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtaro eta egutegi ondorioei buruzko datu zuzenduak, bolumen kateatuko indizean, 2015eko oinarrian.

Sektore bilakaerak lau sektore handiek urte hasiera positiboa izan dutela berretsi du, lehen hiruhileko urte arteko hazkundeak partekatutako izan baitira zerbitzuen sektorean (+% 2,9), industrian eta energian (+% 1,1), eraikuntzan (+% 0,9) eta lehen sektorean (+% 7,4). Hala ere, nabarmendu behar da ekoizpen sektore guztiek hazkunde tasak leundu dituztela aurreko hiruhilekoarekin erkatuta, eta industriaren eta energiaren (+%2,5etik +%1,1ra) eta eraikuntzaren (+% 2,4tik +% 0,9ra) dinamismo txikiagoa azpimarratu behar da; zerbitzuen sektoreak hazkunde sendoa du (% 3 ingurukoa), eta lehen sektoreak, berriz, aldakortasun handia du.

Lau sektore handiek partekatutako hazkundera

¹⁰ 2023ko lehen hiruhilekorako % 2,1eko urte arteko igoera aurreratu zuen (Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza).

EAEko BPG, sektoreen arabera

	2019	2020	2021	2022	Urte arteko aldakuntza tasa, %			
					II	III	IV	I
BPG	2,2	-9,6	5,9	4,4	5,0	3,8	2,9	2,3
Lehen sektorea	5,9	-16,9	21,9	0,8	-3,4	7,8	0,7	7,4
Industria eta energia	1,4	-12,2	6,1	4,6	5,9	3,6	2,5	1,1
Eraikuntza	2,4	-14,4	4,5	2,0	1,3	2,3	2,4	0,9
Zerbitzuak	2,5	-7,9	5,8	4,7	5,4	4,2	3,3	2,9
LOB Enplegua	1,5	-6,2	5,9	3,1	3,7	2,0	1,9	1,5

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhileko kontuak). Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak. BPG bolumen kateatuaren indizeari dagokionez, 2015eko oinarrian

Enpleguak hobera egiten jarraitu du lehen hiruhilekoan, urte arteko hazkundearekin (+% 1,5), EAEko enplegua historikoki altuak diren zifretan jarritz, milioi bat lanposturen langa gaintutuz lanaldi osoko baliokidetasunean (1.005.550 enplegu LOBean). Horrez gain, 2008ko hiruhileko berean erregistratutako maila hobetu zuen (1.004.402 enplegu LOBean) eta 2008ko bigarren hiruhilekoan lortutako zifra maximotik 991 enplegura baino ez zen geratu (1.006.541 enplegu LOBean). Horren haritik, 2023ko bigarren hiruhilekorako aurrerapen datuak adierazi du enpleguak berriz ere gora egingo duela (+% 1,5 eta +% 0,7, urte arteko eta hiruhileko arteko tasan); hala, EAEk enplegu zifra maximoa eta historikoa lortuko luke.

Enplegua maximo historikoetan lehen eta bigarren hiruhilekoetan (aurrerapen datua)

Hala ere, erregistratutako berreskurapena ez da homogenea izan sektore ekonomikoetan; izan ere, 2023ko lehen hiruhilekoan soilik zerbitzuen sektoreak gaintu zuen 2008ko aldi berean lortutako enplegua (+90.818 enplegu LOBean), eta maila horretatik behera egon dira industria eta energia (-47.343 enplegu LOBean), eraikuntza (-39.051 enplegu LOBean) eta lehen sektorea (-3.276 enplegu LOBean). Eraitza horrek argi erakusten du EAEko ekonomia hirugarren sektorera mugitzen ari dela.


LAN MERKATUA

Populazio afiliatua

Bilbok ekain hilabeteko afiliazio daturik onena erregistratu du, Gizarte Segurantzako 184.966 pertsona afiliaturekin, aurreko urteko erregistroa gaindituz (181.442 afiliazio), eta hura ere 2019an lortutakoa baino hobea izan zen (180.289 afiliazio). Emaitza horrek hiribilduko enpleguaren dinamismoa berresten du; izan ere, hilabetez hilabete 2022ko zifrak hobetzen ditu; urte arteko desberdintasunik handiena ekainean erregistratu zen,¹¹ orduan 2022ko ekainean baino 3.524 pertsona afiliatu gehiago izan baitziren. Hala, hiribildua enpleguko maximo historikoetan kokatu da.

Afiliazio errekorra
ekaineko hilabete
batean

Populazio afiliatua



Iturria: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

Populazio afiliatua, araubideen arabera

	2023.06	Δ % hiruhileko artekoa (mar-23)	Δ % urte artekoa (eka.-22)
GUZTIRA	184.966	-0,6	1,9
Araubide Orokorra	155.792	-0,7	2,5
Autonomoak	21.996	-0,6	-2,1
Etxeko langileak	6.461	0,1	1,8
Beste batzuk	717	3,2	6,1

Iturria: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

¹¹ 2023an zehar urte arteko desberdintasuna +2.464 (urtarrila), +3.062 (otsaila), +3.200 (martxoa), +3.078 (apirila) eta +2.881 (maiatza) izan da.

Araubide Orokorrek izan du urte arteko hobekuntzarik handiena, 155.792 pertsona afiliaturekin (+% 2,5 eta +3.847 afiliazio); hala, hiribilduko kotizazio araubide nagusi modura finkatu da (guztiaren % 84,2). Horrez gain, gora egin du Etxeko Langileen Araubide Bereziaren (+% 1,8 eta +115 afiliazio) eta¹² beste araubide batzuetara (+% 6,1 eta +41 afiliazio) atxikitako afiliazioak, baina ekarpena argi eta garbi txikiagoa da (% 3,5 eta % 0,4, hurrenez hurren). Aitzitik, atzera egin du Langile Autonomoen Araubide Bereziaren afiliazioak (-% 2,1 eta -479 afiliazio); hiribilduan afiliatutako 21.996 pertsona biltzen ditu (guztiaren % 11,9).

Azken urtean afiliazioa galdu duen araubide bakarra autonomoena da

Bestalde, hiruhileko arteko bilakaerak afiliazioaren beherakada arina izan du (-% 0,6), Araubide Orokorrean (-% 0,7) eta Langile Autonomoen Araubide Bereziaren (-% 0,6) oinarrituz, baina, bat dator urteko aldi horri lotutako urtaro eraginarekin -martxoko enplegu datua baino pixka bat txarragoa izan ohi da-. Nolanahi ere, adierazi behar da erregistratutako hiruhileko arteko murrizketa (-% 0,6) 2019an baino pixka bat handiagoa izan dela (-% 0,3); horrek adierazten du hiribilduko afiliazioaren hobekuntza bidea nolabait agortu egin dela.

Populazio afiliatua, jarduera adarraren arabera

	2023.06	Δ % hiruhileko artekoa (mar-23)	Δ % urte artekoa (eka.-22)
Lehenengo sektorea	274	1,1	-3,9
Industria eta energia	8.747	2,7	3,1
Industria	4.935	0,2	0,6
Energia	1.099	1,2	15,2
Hondakinak eta ura	2.713	8,4	3,2
Eraikuntza	9.421	1,8	3,9
Eraikuntza	3.196	3,4	6,9
Eraikuntzako laguntzaileak	6.225	1,0	2,4
Zerbitzuak	166.513	-0,9	1,8
Merkataritza	19.264	0,8	-0,8
Garraioa eta biltegiatzea	9.198	2,6	3,4
Ostalaritza	10.174	1,1	6,9
Ostatua	1.863	10,2	7,8
Informazioa eta komunikazioak	9.843	-2,0	7,4
Finantza eta aseguruak	7.155	0,2	1,8
Higiezinak	1.227	0,9	-3,2
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta tekn.	14.542	0,3	2,5
Administrazio eta zerbitzu osagarriak	16.895	-1,9	-6,7
Administrazio publikoa	12.156	-0,3	3,8
Hezkuntza	22.715	-8,5	3,9
Osasuna	14.514	5,3	0,7
Gizarte zerbitzuak	9.756	1,4	3,9
Aisialdia eta kulturakoak	3.715	-9,6	0,4
Etxeko langileak	6.927	0,1	1,5
Beste zerbitzu batzuk	6.569	-1,8	2,9

Oharra: Guztiara arteko desberdintasuna sektore esleipena zehaztuta ez dituzten afiliazioei dagokie.
Iturria: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

¹² Araubide Orokorra Nekazaritzako Araubide Bereziaren eta Itsasoko Langileen Araubide Bereziaren.

Sektoreen bilakaerak erakutsitako afiliazioaren urte arteko hobekuntza partekatua da zerbitzuen (+% 1,8), eraikuntzaren (+% 3,9) eta industria eta energiaren sektorean (+% 3,1); lehen sektoreak, berriz, atzera egin du (-% 3,9). Bestalde, hiruhileko arteko bilakaeran argi ikusten da zerbitzuen sektoreak jokabide okerragoa izan duela (-%0,9) industria eta energiaren (+%2,7), eraikuntzaren (+%1,8) eta lehen sektorearen (+%1,1) dinamismoarekin erkatuta; hala ere, ez dute orekatu hiribilduko afiliazioaren beherakada globala (-%0,6).

Afiliazioak ia jarduera adar guztietan egin du hobera (urte arteko tasa)

Jarduera adarren arabera, eta arreta zerbitzuen sektorean jarritz (afiliazioaren % 90), esan behar da hamahiru jarduera adarrek afiliazioan gora egin dutela 2022. urtearekin erkatuta. Barne hartzen ditu ostalaritza (+% 6,9), ostalua (+% 7,8), informazioa eta komunikazioak (+% 7,4), hezkuntza (+% 3,9) eta Administrazio Publikoa (+% 3,8), besteak beste. Hala ere, hiru jarduera adarrek afiliazioa galdu dute; administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak (-% 6,7), higiezinak (-% 3,2) eta merkataritza (-% 0,8), egitura joerarekin bat etorritik.

Hiruhileko arteko bilakaerak balantze pixka bat negatiboa agertu du; izan ere, sei jarduera adarretan afiliazioak behera egin du, eta zerbitzuen sektoreari lotutako enpleguak atzera egitea eragin du horrek (-% 0,9). Barne hartzen ditu hezkuntza (-%8,5), aisialdi eta kultura jarduerak (-%9,6), administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak (-%1,9), informazioa eta komunikazioak (-%2,0), beste zerbitzu batzuk (-%1,8) eta Administrazio publikoa (-%0,3).

Benchmarkina Populazio afiliatua

	2023.06	Δ % hiruhileko artekoa (mar-23)	Δ % urte artekoa (eka. -22)
Madril	2.228.631	0,4	5,0
Bartzelona	1.189.166	-0,3	1,9
Valentzia	430.267	0,6	4,5
Sevilla	383.998	-1,9	2,2
Zaragoza	305.077	-0,5	2,2
G-5 batezbestekoa	---	-0,3	3,1
BILBO	184.966	-0,6	1,9
Gasteiz	124.846	-0,8	1,5
Donostia	122.673	0,4	2,1
Iruñea	112.226	0,0	1,2
G-3 batezbestekoa	---	-0,2	1,6
G-9 batezbestekoa	---	-0,3	2,5

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

Erreferentziazko hiriburuek antzeko bilakaera izan dute, urte arteko hobekuntzekin eta afiliazioaren hiruhileko arteko galerekin. Salbuespenak Madril (+% 5,0 eta +% 0,4), Valentzia (+% 4,5 eta +% 0,6) eta Donostia (+% 2,1 eta +% 0,4) dira, urte arteko eta hiruhileko arteko hobekuntzekin, hurrenez hurren.

Kontratuak¹³

Kontratazioak gora egin du aurreko hiruhilekoarekin erkatuta (+% 15,4), bat etorritik urteko aldi horretan nagusitzen den urtaro efektuarekin -2019ko bigarren hiruhilekoan erregistratutako antzeko dinamismoarekin (+%14,0)- baina atzera egin du 2022ko aldi berdinarekin alderatuta (-% 5,9). Zehazki, Bilbok 28.656 kontratu berri erregistratu ditu bigarren hiruhilekoan (egoiliarak), eta 30.000 kontratu berriak beherako kontratazio bolumena izan duten bi hiruhileko metatu ditu; zifra hori ez da 2022ko lau hiruhilekoetan gainditu. Kontratazio berriaren doikuntza horrek lan erreformaren eragin (positiboa) utzi du agerian; izan ere, aldi baterako kontratazioa mugatuz pertsonek lanpostuarekin duten lotura indartu egin da, enpleguaren kalitatea hobetuz.

Hiruhileko arteko hobekuntza eta urte arteko beherakada hiribilduko kontratazioan (egoiliarak)

Izan ere, nabarmendu behar da hiribilduko egoiliarrek bigarren hiruhilekoan sinatutako kontratu berrien % 43,5 mugagabeak izan dira, eta kontratazio modalitate horren kuotarik handiena lortu da¹⁴, orotara 12.465 kontratu berri barne hartuz; hiruhileko eta urte arteko igoera izan du (+% 46,8 eta +% 19,1, hurrenez hurren). Bestalde, aldi baterako modalitateak atzera egin du (-% 0,9 eta -% 19,0), guztira 16.191 kontratu berriekin.

Kontratazio mugagabearen errekorrekin (guztia)

Kontratuak

	2023.I	2023.II	Δ % hiruhileko artekoa (23ko I. hiruhileko gainean)	Δ % urte artekoa (22 II. hiruhileko gainean)
GUZTIRA	24.823	28.656	15,4	-5,9
Emakumeak	12.542	14.384	14,7	-3,2
Gizonak	12.281	14.272	16,2	-8,6
16-24 urte bitartekoak	4.746	6.982	47,1	5,9
25-34 urte bitartekoak	7.309	8.352	14,3	-5,1
35-44 urte bitartekoak	5.696	5.799	1,8	-14,7
45 urte edo gehiago	7.072	7.523	6,4	-9,1
Mugagabeak	8.489	12.465	46,8	19,1
Aldi baterako	16.334	16.191	-0,9	-19,0
Lehen sektorea	405	460	13,6	-8,4
Industria eta energia	2.198	2.335	6,2	-13,7
Eraikuntza	1.216	1.138	-6,4	-18,4
Zerbitzuak	21.004	24.723	17,7	-4,4

Bilbon bizi den populazioak erregistratutako kontratazio berriak.
Iturria: SEPE

Bestalde, adierazi behar da aztertutako talde guztiek (sexua, adina eta sektorea) pareko bilakaera daukatela kontratazio berriari dagokionez, hiruhileko arteko aurrerapen eta urte

¹³ Abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuan jasotako lan erreforma indarrean sartzeak kontratazioaren esparru juridikoa aldatzea ekarri du, denbora modalitatea mugatuz. Aldaketa horren ondorioek aurreko egoerarekin alderatzea eragozten dute, erregistratutako kontratuen bolumen osoak eta horien osaera (mugagabea eta aldi baterakoa) ez baitira alderagarriak. Horrez gain, pixkanaka marko berri horrek kontratazioaren bolumen osoak murriztea eragingo du.

¹⁴ Lan erreformaren aurretik ez zen ia % 10era iristen (2019an % 8,8, urteko batezbestekoa), baina 2022an % 29,7ra iritsi zen eta aurreko, dagoeneko, (2023ko lehen seihilekoa) % 39,2ra igo da.

arteko beherakadekin, baina zenbait ñabardurekin. Hain zuzen ere, gizonen kontratazioaren urte arteko beherakada handiagoa nabarmendu behar da (-% 8,6 eta -% 3,2), baina aurreko hiruhilekoarekin erkatuta gehiago hazi da (+% 16,2 eta +% 14,7); bi taldeek ekarpen antzekoa izan dute (% 50,2 emakumeak eta % 49,8 gizonak). Adin taldeen arabera, multzorik gazteena nabarmendu behar da (16-24 urte), hiruhileko arteko hobekuntzarik handiena izan baitu (+% 47,1) eta 2022ko bigarren hiruhilekoarekin erkatuta kontratazioa handitu duen multzo bakarra da (+% 5,9); 25-34 urte artekoen taldearekin batera hiribilduko kontratazioaren erdia baino gehiago hartu dute (% 53,5). Azkenik, jokabiderik onena izan duen jardueren sektorea zerbitzuena izan da; hiribilduan sinatutako kontratu berrien zatirik handiena hartzeaz gain (guztiaren % 86,3), hiruhileko arteko aurrerapenik handiena (+% 17,7) eta urte arteko beherakadarik txikiena ere izan du (-% 4,4).

Erregistratutako langabezia tasa

Hiribilduan erregistratutako langabeziak behera egiten jarraitzen du, eta dagoeneko 21.000 pertsonatik beherakoa da; 2009ko ekainetik ez da zifra hori ikusi. Hala, Bilbok 20.658 pertsona langabetu erregistratu ditu (2023ko ekaina), eta urte artean behera egin du (-% 4,9); 2009ko ekaineko mailara gerturatzen ari da (20.437 pertsona langabetu erregistratu) baina oraindik 2007ko ekainean lortutako erregistrorik txikienetik urrun dago (13.391 pertsona langabetu erregistratu). Hiruhileko arteko tasa modura jasotako adierazle koiunturalenak langabezia erregistratuaren beherakada berretsi du (-% 3,0), baina beherapen hori txikiagoa izan da urte arteko terminoetan baino (-% 4,9).

Hiribilduan
erregistratutako
langabezia dagoeneko

Erregistratutako langabezia tasa



Iturria: SEPE eta Lanbide.

Langabezia tasa erregistratuak emakumeen zein gizonen kasuan egin du behera, hiruhileko arteko tasan (-% 2,0 eta -% 4,3) zein urte arteko tasan (-%4,6 eta -%5,2); baina nabarmendu behar da hiribilduko langabetuen erdia baino gehiago emakumeak direla (guztiaren % 56,1).

Adin taldeen arabera, baieztatu behar da langabezia, oro har, doitu egin dela, eta urte arteko beherakada nabarmendu behar da 25-34 eta 35-44 urte arteko taldeetan (-%6,7 eta

-%9,3) eta neurri txikiagoan 16-24 urte bitartekoen kasuan (-%3,9) eta 45 urte eta gehiagokoen taldean (-%2,8); azken talde horrek hiribilduko populazio langabetuaren zati handiena hartzen du (guztiaren % 57,0).

Langabeziaren iraupenak zenbait desberdintasun ekarri ditu; urte arteko eta hiruhileko arteko tasan langabezian gora egin duen bakarra (+%14,5 eta +%1,4, hurrenez hurren) langabezian 1-2 urte artean daramatenen taldea da, eta 6 hilabete eta urtebete artean langabezian daraman taldean gora egin du aurreko hiruhilekoarekin erkatuta (+%12,3). Beste taldeetan enpleguak behera egin du, eta langabezian 6 hilabetera arte daraman taldean izandako hiruhileko arteko murrizketa nabarmendu behar da (-% 11,7); urte arteko terminoetan, berriaz, egoera horretan 2-3 urte artean daraman taldearen doikuntza aipatu behar da (-% 35,1).

Azkenik, aipatu behar da langabeziaren beherakada handiagoa izan dela prestazioak kobratzen dituzten pertsonen artean, urte arteko terminoetan (- %6,7 eta -% 4,1) zein hiruhileko arteko terminoetan (-% 7,9 eta -% 1,0).

Erregistratutako langabezia tasa

	2023.06	Δ % hiruhileko artekoa (mar-23)	Δ % urte artekoa (eka. -22)
GUZTIRA	20.658	-3,0	-4,9
Emakumeak	11.721	-2,0	-4,6
Gizonak	8.937	-4,3	-5,2
16-24 urte bitartekoak	1.628	-7,7	-3,9
25-34 urte bitartekoak	3.200	-5,7	-6,7
35-44 urte bitartekoak	4.063	-2,5	-9,3
45 urte edo gehiago	11.767	-1,7	-2,8
6 hilabetera arte	6.327	-11,7	-4,4
6 hilabete eta urte 1 bitartekoak	2.995	12,3	-2,7
1 eta 2 urte bitartean	3.006	1,4	14,5
2 eta 3 urte bitartean	1.447	-2,2	-35,1
3 urte baino gehiago	6.883	-2,0	-3,9
Ez du langabezia prestaziorik kobratzen	14.987	-1,0	-4,1
Langabezia prestazioa kobratzen du	5.671	-7,9	-6,7

Iturria: SEPE eta Lanbide.

Erreferentziatzko hiriburuetan ere langabezia erregistratuak behera egin du, baina estatuko bi hiriburu nagusietan jokabide okerragoa izan du: Bartzelonan langabeziak gora egin du (+% 1,5) 2022ko datuarekin erkatuta, eta urte arteko doikuntzarik txikiena Madrilen izan da (-% 0,7). Bestalde, Zaragozan (-% 8,5), Valentzian (-% 7,0) eta Sevillan (-% 5,6) izandako beherakadak nabarmendu behar dira, nahiz eta hiru kasuetan beherakadak murriztu egin diren hiruhileko arteko terminoetan. EAEko hiriburuetan langabeziak behera egiten jarraitu du, eta Donostiako urte arteko beherakada (-% 11,2) nabarmendu behar da; ondoren datoz Iruñea (-% 6,3) eta Gasteiz (-% 3,4).

Langabezia doikuntza
baita erreferentziatzko
hiriburuetan ere

Benchmarkina Erregistratutako langabezia tasa

	2023.06	Δ % hiruhileko artekoa (mar-23)	Δ % urte artekoa (eka. -22)
Madril	142.896	-4,3	-0,7
Bartzelona	60.314	-4,4	1,5
Valentzia	47.185	-3,3	-7,0
Sevilla	61.395	-2,9	-5,6
Zaragoza	30.676	-6,6	-8,5
G-5 batezbestekoa	---	-4,3	-4,1
BILBO	20.658	-3,0	-4,9
Gasteiz	14.587	-4,0	-3,4
Donostia	6.375	-5,5	-11,2
Iruñea	9.846	-8,6	-6,3
G-3 batezbestekoa	---	-6,0	-7,0
G-9 batezbestekoa	---	-4,8	-5,1

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: SEPE eta Lanbide.

Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren 2023ko bigarren hiruhilekoko emaitzek adierazi dute Bilbon bizi den populazio aktiboa 158,8 milaka pertsonakoa dela; aurreko hiruhilekoko erregistroa arinki hobetu da (+% 0,8) baina urrun dago 2022ko bigarren hiruhilekoan izandako zifra altutik¹⁵ (-%7,6).

Populazio langabetuak nabarmen egin du behera


Populazio aktiboaren osaerak erakutsi duenez, urte arteko beherakada, batez ere, populazio langabetuak behera egin izanari zor zaio (-% 35,4), azken urteetako baliorik baxuena izan baitu, hiribilduan bizi diren 12,6 milaka pertsona langabeturekin. Populazio landunak ere behera egin du¹⁶ 2022ko bigarren hiruhilekoarekin erkatuta (-% 4,0) eta kalkulatu da 146,2 milaka pertsona landun daudela. Beherakada horretan gizonezkoen (-%4,9) zein emakumezkoen (-% 2,9) taldeak izan du zeresana, baina hiruhileko arteko terminoetan emakumeen okupazioaren dinamismoa nabarmendu behar da (+% 7,1), gizonezkoen okupazioarekin erkatuta (-% 0,1). Bestalde, adierazi behar da zerbitzuen sektoreak hartzen duela hiribilduko populazio landunaren zatirik handiena (guztia % 82,6); hiruhileko artean aurrera egin du (+% 3,1), eta beherakada txikia izan du urte artean (-% 2,6).

Enplegu adierazleak erakutsi dute hiribilduko enplegu tasa % 50,9koa dela; gizonezkoen taldeak ratio handiagoa du (% 56,3) emakumeen taldeak baino (% 45,9) eta adierazle globalaren bilakaerak erakutsi du hiruhileko artean hobekuntza egon dela (+1,5 puntu) eta urte artean, berriz, beherakada (-2,2 puntu), bat etorritik hiribilduan bizi den populazio landunak izandako bilakaerarekin. Bestalde, langabezia tasa % 7,9ra arte jaitsi da; azken urteetako erregistrorik txikiena da -pandemia aurreko zifra ere hobetuz- eta ratioa handiagoa da emakumeen taldean (% 6,4 eta % 9,3).

¹⁵ Emaitza zuhurtziaz hartu behar da; izan ere, populazioa aktiboa handitu egin da populazio ez aktiboaren balioa murriztearen truke, eta nabarmen urrundu zen hiribilduan 2016an erregistratu zen zifratik (125,0 milaka pertsona inguru).

¹⁶ Paradoxikoa da, hiribilduan zein Bizkaian izandako afiliazioak goranzko joera jarraitua izan baitute, estatistika honek biztanleria landunaren bilakaerarako aurreikusitakoaren kontrara.

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabetua



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta, EIN

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabetua eta adierazleak (enplegu eta langabezia tasa)

	2022.III	2022.IV	2023.I	2023.II	Δ % Hiruhileko artean	Urte artean
Biztanleria aktiboa (milakotan)	168,5	163,7	157,5	158,8	0,8	-7,6
Biztanleria landuna (milakotan)	153,0	149,6	141,7	146,2	3,2	-4,0
Nekazaritza	0,9	0,8	0,0	0,6	--	--
Industria	16,8	13,7	14,6	16,6	13,7	-9,8
Eraikuntza	8,1	10,6	10,0	8,3	-17,0	-13,5
Zerbitzuak	127,2	124,6	117,2	120,8	3,1	-2,6
Langabeak (milakotan)	15,5	14,1	15,8	12,6	-20,3	-35,4
Enplegu tasa (%)	52,2	53,3	49,4	50,9	1,5	-2,2
Emakumeak	47,3	47,2	43,3	45,9	2,7	-1,1
Gizonak	57,5	60,0	56,0	56,3	0,3	-3,5
Langabezia tasa (%)	9,2	8,6	10,0	7,9	-2,1	-3,4
Emakumeak	9,8	6,8	9,5	6,4	-3,1	-5,0
Gizonak	8,7	10,1	10,5	9,3	-1,2	-2,1

Enplegu tasarako eta langabezia tasarako aldakuntza tasa ehuneko puntutan.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta, EIN

MERKATARITZA

Bizkaiko merkataritzaren sektoreko salmentek positiboan hasi dute urtea, % 7,6ko urte arteko hazkundearekin. Hala ere, igoera hori aurreko bi aldietan izandakoaren erdian gelditu da (2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoan +%13,7 eta +%13,4); hala, lurraldeko merkataritza jardueraren hazkundera nolabaiteko moderazioa gertatu da. Hiru azpisektoretan salmentek hobera egin dute, eta nabarmendu behar dira ibilgailuen salmenta eta konponketa (+% 13,7), txikizkako merkataritza (+% 10,6) eta, neurri txikiagoan, handizkako merkataritza (+% 4,9). Nabarmendu behar da txikizkako merkataritzaren dinamismoa zor zaiola elikadurak (+% 12,2) zein gainerako produktuek (+% 9,1) bilakaera positiboa izateari.

Bizkaiko merkataritzaren sektoreko salmentek hazten jarraitzen dute

Emaizta hauek (prezio arruntak) prezio konstanteetan lortutakoekin osatzen dira¹⁷; izandako igoeraren balioa beherantz berrikusi arren -prezioen igoeraren eragina gehitzen dute-, sektoreko salmenten jokabide ona berresten dute (+%1,5) hazkunde errealearen erreferentzia modura. Dinamismo honetan lagundu dute ibilgailuen salmenta eta konponketak (+% 7,0) -salmentek gora egin dute lehen aldiz tasa negatiboetan sei hiruhileko eman eta gero- eta txikizkako merkataritzak (+% 4,5); handizkako merkataritzaren salmentetan izandako atzerapena orekatzen dute (-% 1,6). Azkenik, merkataritza sektoreko enpleguak gora egiten jarraitzen du (+% 0,7) eta hobera egiten ondoz ondoko zortzigarren hiruhilekoa du dagoeneko.

Sektore enpleguak hazten jarraitzen du

Merkataritza

	Urte arteko aldakuntza tasa, %					
	(prezio arruntak)			(prezio konstanteak)		
	2022.III	2022.IV	2023.I	2022.III	2022.IV	2023.I
Salmentak	13,7	13,4	7,6	1,0	3,6	1,5
Ibilgailu motordunak saltz.-konpo.	-0,2	6,4	13,7	-10,1	-2,9	7,0
Handizkako merkataritza	19,2	17,6	4,9	2,9	5,3	-1,6
Txikizkako merkataritza*	8,0	8,1	10,6	0,7	1,9	4,5
Elikadura	11,9	11,2	12,2	2,3	1,3	2,3
Gainerako produktuak	4,9	5,5	9,1	-0,6	2,3	6,3
Landunen indizea	0,6	1,3	0,7	--	--	--

*Zerbitzugunerik gabeko indize orokorra.

Bizkaiko datuak, egutegi ondorioekin zuzendutakoak, eta enplegu datuak, urtaroko efektua kenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak. Oinarria 2015.

Iturria: Eustat

Bizkaiko saltoki handietako salmentek (prezio arruntak) hazten jarraitu dute 2023ko bigarren hiruhilekoan (+% 8,7), elikaduraren segmentuaren laguntzarekin (+%12,9); elikaduratik kanpoko segmentuaren jokabidea ez da horren dinamikoa izan (+% 1,8). Hala ere, dinamismoak argi eta garbi behera egin du prezio konstanteetan, eta hazkunde txikia izan du (+% 0,2); elikaduratik kanpoko segmentuan, berriz, negatiboa da (-% 2,8), eta prezioen igoeraren eragina argi utzi du.

Saltoki handietako salmentek hobera egin dute

¹⁷ Moneta balorazioa euroari dagokiona, urte jakin bat oinarritzat hartuz, kasu honetan 2015 (iturria: Eustat.)

Lotutako enpleguak hobera egin du (+% 2,8), hazkundera izan duen ondoz ondoko bederatzigarren hiruhilekoa gehituz, eta salmenta handietan lan egiten duten langileen indize balioak (117,9, apirila-ekaina batezbestekoa) argi eta garbi gaitzen du 2019ko bigarren hiruhilekoko datua (108,7).


Saltoki handietako salmentak

Urte arteko aldakuntza tasa, %

	(prezio arruntak)			(prezio konstanteak)		
	2022.IV	2023.I	2023.II	2022.IV	2023.I	2023.II
Salmentak	9,9	11,6	8,7	-0,2	1,3	0,2
Elikadura	9,3	11,5	12,9	-3,9	-1,9	2,2
Gainerako produktuak	10,8	11,7	1,8	5,9	6,6	-2,8
Landunen indizea	3,8	3,1	2,8	--	--	--

Bizkaiko datuak, egutegi ondorioekin zuzendutakoak, eta enplegu datuak, urtaroko efektua kenduta. Hiruhilekoko datua (hileko datuen batezbestekoa). Uneko urteko behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat

Saltoki handietako salmenta indizea, hileko bilakaera



Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta (prezio arruntak). Oinarria 2015. Uneko urteko behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat

Ibilgailuen salmenta eta konponketen sektorearen indizearen dinamismoa lurraldeko ibilgailu berrien salmentaren bilakaeran islatu da, nabarmen hobetu baita urteko bigarren hiruhilekoan (3.524 unitate), eta gaitu egin ditu lehen hiruhilekoko (+% 12,6) eta aurreko urteko (+% 7,9) erregistroak, baina oraindik ez da iritsi 2019ko aldi berdinean erregistratutako zifretara (-% 36,7).

Ibilgailu berrien matrikulazioaren bultzada

Hobekuntza partekatua da partikularren eta enpresen segmentuan, baina berreskurapenik handiena enpresen segmentuan gertatu da (2019arekin erkatuta -%19,7); partikularren kasuan, berriz, matrikulazioa 2019ko bigarren hiruhilekoaren ia erdia da (-% 43,6).

Hala, lehen sei hilekoaren balantzea oso positiboa da (6.653 unitate, +% 18,2, urte arteko tasan); horrek urteko bigarren zatian berretsiko den joera aldaketa potentziala adierazten du.

Hala, sektoretik adierazi dutenez, "jokabide on hori, batez ere, ibilgailuak merkaturantz hobeto hornitzeari zor zaio, hornidura katea egonkortzeari esker, baita kanpaina turistikoari begira ibilgailuak alokatzeko enpresek egindako matrikulazioek nabarmen gora egin izanari ere". Hala, 2023. urterako aurreikuspenei eutsi egin zaie (950.000 unitate, estatuko erreferentzia), baina interes tasek gora egitearen eragina ziurgabetasun faktore gisa aipatu da eragile ekonomikoek ibilgailuak erosteko erabakiari dagokionez.

Ibilgailuen matrikulazioa

	2022.II	2022.III	2022.IV	2023.I	2023.II	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa	Δ % Covid aurrekoa
Guztira	3.265	2.591	3.123	3.129	3.524	12,6	7,9	-36,7
Partikularrak	1.944	1.548	2.131	2.045	2.230	9,0	14,7	-43,6
Enpresak eta bestelakoak	1.321	1.043	992	1.084	1.294	19,4	-2,0	-19,7

Bizkaiko datuak
Iturria: Anfac

Hiribilduko merkataritza sektorearen afiliazioa 19.264 pertsonakoa da; hiruhileko artean hobekuntza arina izan du (+% 0,8), baina atzera egin du aurreko urtearekin erkatuta (-% 0,8). Enpleguaren zatirik handiena txikizkako merkataritzan bildu da (guztiaren % 72,5), eta hobera egin du hiruhileko artean (+% 1,4) eta urte artean (+% 0,3), baina ez da aski handizkako merkataritzan eta ibilgailuen salmenta eta konponketan izandako beherakada orekatzeko (-4,2 eta -% 1,1, urte artean). Bestalde, Bilbok merkataritza enpresen ehuna galdu du; dagoeneko 2.400 enpresa baino gutxiagokoa da, eta enplegu autonomia garrantzia galtzen ari da (guztiaren % 27,2).

Hiribilduko merkataritza sektoreak enpresak eta enplegua galtzen jarraitzen du

Bilboko adierazleak

	2022.12	2023.03	2023.06	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Pertsona afiliatuak¹	19.750	19.106	19.264	0,8	-0,8
Handizkako merkataritza	4.374	4.232	4.172	-1,4	-4,2
Txikizkako merkataritza	14.260	13.771	13.967	1,4	0,3
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.116	1.103	1.125	2,0	-1,1
Enpresak²	2.447	2.404	2.387	-0,7	-2,6
Handizkako merkataritza	606	602	586	-2,7	-3,5
Txikizkako merkataritza	1.675	1.636	1.639	0,2	-1,9
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	166	166	162	-2,4	-5,8
Soldatapeko batez besteko enplegua³	5,8	5,7	5,9	--	--
Enplegu autonomoaren %	27,6	28,0	27,2	--	--

1. Enplegua, guztira (araubide guztiei dagokiena).

2. Kotizazio kontuak, Araubide Orokorreko afiliatzen euskarria.

3. Araubide Orokorrean afiliatutako pertsonak, kotizazio kontuen guztizkoari dagokionez.

Iturria: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

TURISMOA

Bigarren hiruhilekoan hiribilduko hotelen jarduerak indartu egin du urte hasiera positiboa; bigarren hiruhileko batean bidaiarien sarreretan (301.909) eta ostatu gauetan (586.478) zifrarik altuenak lortu dira eta urte arteko hazkunde garrantzitsuak izan dira (+% 9,1 eta +% 10,1, hurrenez hurren) -2022ko bigarren hiruhilekoaren arabera kalkulatu dira, eta horrek ere errekorra markatu zuen-. Hala, hiribilduak oso lehen seihileko positiboa itxi zuen, milioi erdi bidaiari baino gehiagoren sarrerarekin (521.089) eta ia milioi bat ostatu gaurekin (994.607), hiribilduan hotelen jardueran zifra historikoak izateko uda hasi aurretik.

Hiribilduko hotelen jardura: uda historiko baten atariko

Bilakaera positibo horrek nazioarteko segmentuaren bultzada izan du -orain arte berreskuratzen motelago ibili da-, bidaiarien sarreran eta ostatu gauetan hazkunde nabarmena izan baitu (+% 26,8 eta +% 26,0, urte artean), aurreko edozein erregistro gaindituz (171.187 bidaiari eta 354.624 ostatu gau). Aldi horretan hiribilduan lo egin duten bidaiarien erdia baino gehiago atzerritarrak ziren (guztiaren % 56,7); ez da horrelako zifrarik ikusi 2019tik, nazioarteko segmentuaren berreskurapen osoa berretsiz. Bestalde, atzera egin du estatuko segmentuak, bidaiarien eta ostatu gauen bolumena txikiagoa izan baita 2022ko bigarren hiruhilekokoa baino (-% 7,8 eta -% 7,7, hurrenez hurren), parametro normalizatuetaantz itzuliz¹⁸, baina 2019koak baino erregistro handiagoetan. Hiribilduko hoteletako batez besteko egonaldia 1,94 egunekoa da, eta nazioarteko segmentuan (2,07 egun) ratioa pixka bat handiagoa da estatu mailakoen artean baino (1,77 egun).

Bestalde, hiribilduan egiten diren lau ostatu gaueetatik hiru egin dira hiru izar eta gehiagoko hoteletan (guztizkoaren % 75,3), eskura dagoen eskaintzarekin bat datorren profil egonkorrekin¹⁹, Bilbo kalitatezko helmuga modura indartuz.

Turismoa

	2023.I	2023.II	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Ostatu gauak	408.129	586.478	43,7	10,1
3 izar eta gehiagoko hotelak	308.785	441.676	43,0	6,7
3* baino gutxiagoko hotelak eta pentsioak	99.344	144.802	45,8	22,1
Estatukoak	251.830	231.854	-7,9	-7,7
Atzerritarrak	156.299	354.624	126,9	26,0
Bidaiariak	219.180	301.909	37,7	9,1
Estatukoak	143.360	130.722	-8,8	-7,8
Atzerritarrak	75.820	171.187	125,8	26,8
Batez besteko egonaldia	1,86	1,94	0,08	0,02


Batez besteko egonaldia: ostatu gauak/bidaiariak (egunak). *Aldakuntza ehuneko puntuetan.
Iturria: Eustat

¹⁸ 2022an estatuko turismoak igoera nabarmena izan zuen, nahiz eta (artean) pandemiak eragindako egoerak baldintzatuta egon, nazioarteko turismoaren gainetik gertuko helmugei egin baitzien mesede.

¹⁹ Bilboko ostalaritza establezimenduek egunero 10.000 plaza inguru eskaintzen dituzte, eta horietatik 7.000 baino gehiago hiru izarrekoak eta gehiagokoak dira.

Hileen bilakaerak berretsi du hiribilduan hotelen jarduerak bultzada izan duela, apirilean eta maiatzean hilero 100.000 bidaiarien langa gaitu baita, eta erregistro horretara gerturatu baita ekainean; hilabete horietarako zifrarik onenak dira serie historikoan. Ostatu gauak ere 2022ko emaitzak gaitu dituzte, hilero 200.000 ostatu gau ingururekin. Emaitza hauek lortzeko lagungarriak izan dira, batetik, errekorra hautsi dituen Aste Santua (33.820 ostatu gau) eta, bestetik, *Grand Depart* edo Frantziako Tourra hiribildutik abiatzea ekarri zuen ekaineko hilea.

Bidaiariak eta ostatu gauak hotel establezimenduetan Bilbon



Iturria: Eustat

Erreferentziazko hiriburuak hotel jardueren dinamismoa partekatu dute, baina, oro har, EAEko hiriburuetan dinamismoa handiagoa izan da estatuko hiriburuetan baino. Hala, Donostia (+% 11,9) eta Gasteizko (+%21,1) ostatu gauen urte arteko igoera nabarmendu behar da, Bartzelona (+%3,7), Madril (+%8,5) edo Valentziako (+%2,8) kasuetan ez bezala.

Benchmarkina hotel gauak

	2023.I	2023.II	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Madril	4.423.897	5.355.308	21,1	8,5
Bartzelona	4.542.838	5.850.679	28,8	3,7
Valentzia	966.806	1.249.000	29,2	2,8
Sevilla	1.391.080	1.665.545	19,7	9,1
Zaragoza	404.777	513.396	26,8	6,3
G-5 batezbestekoa	---	--	25,1	6,1
BILBO	408.129	586.478	43,7	10,1
Gasteiz	158.876	192.190	21,0	21,1
Donostia	321.941	531.459	65,1	11,9
Iruñea	116.916	163.074	39,5	1,4
G-3 batezbestekoa	---	--	41,8	11,5
G-9 batezbestekoa	---	--	32,8	8,3

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Eustat eta EIN

GARRAIOA

Aire bidezko garraioa

Bigarren hiruhilekoan berretsi egin da Loiuko aireportuaren jardueraren berreskurapena, 1.706.727 bidaiarirekin; lehen aldiz ²⁰ 2019ko zifrak (orain arteko urterik onena) gainditu dira. Hain zuzen ere, Bizkaiko aireportuak 2019ko bigarren hiruhilekoan (1.653.453) baino 53.274 bidaiari gehiago izan zituen; hala, urteko une honetarako maximo historikoak lortu dira, eta zifra hori soilik 2019ko hirugarren hiruhilekoan gainditu zen (1.752.878). Emaizak ikusita, pentsatzekoa da 2023. urtea errekor urtea izango dela; izan ere, lehen seiuhilekoan 2.826.775 bidaiariko oinarritik abiatzen da, oso positibotzat jotzen den uda garaia atarian.

Loiuko aireportua
maximo historikoetan

Emaizta horiek lortu dira nazioarteko trafikoak dinamismo txikiagoa izan duen arren; oraindik ez ditu 2019ko zifrak berreskuratu (-% 7,1); ziurrenik, hegaldi horiek eskaintzen diren tarifetan erregaien kostuen igoeraren eraginak baldintzatuago egon dira. Hala, aireportuaren jardueraren berreskurapenak batez ere estatuko segmentuaren laguntza izan du (1.019.001 bidaiari bigarren hiruhilekoan), pandemia aurreko zifrak aise gaindituz (+% 11,4), eta aireportuan hamar bidaiarietatik sei ematen ditu (% 59,8); nazioarteko segmentuak, berriz, pisu txikiagoa du (% 40,2), eta, hala ere, azken hiru urteetako kuotarik onena lortu du,²¹ pixkanaka hobera egiten ari dela erakutsiz.

...nazioarteko
bidaiarien multzoak
dinamismo txikiagoa
izan arren

Loiuko aireportua

	2023.I	2023.II	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa	Δ % Covid aurrekoa
Bidaiariak (kop.)	1.120.048	1.706.727	52,4	18,4	3,2
Hegaldi komertzialak	1.117.529	1.704.186	52,5	18,4	3,2
Estatu mailakoak	748.225	1.019.001	36,2	13,3	11,4
Nazioartekoak	369.304	685.185	85,5	26,9	-7,1
Eragiketak (kop.)	9.885	14.008	41,7	8,7	-2,2

Behin-behineko datuak.
Iturria: Aena

Hileko bilakaerak (apirila-ekaina) berretsi du Bizkaiko aireportuaren dinamismoak (531.496, 570.984 eta 604.247 bidaiari apirila eta ekaina artean) 2019ko erregistroak gainditu dituela kasu guztietan. Horrez gain, nabarmendu behar da Loiuko aireportuaren historiako hilabeterik onena ekaina izan dela: hilean 600.000 bidaiariren langa gainditu du (604.247), eta zifra hori soilik 2019ko uztailean lortu zen (603.139). Helmuga berriak gehitzea²² eta ekitaldi handiak ospatzea (Frantziako Tourra, gutxienez partzialki) lagungarriak izan dira bidaiarien trafikoa handia izateko. Izan ere, ikusi da nazioarteko trafikoak 2019an lortutako zifrekin erkatuta alderik txikiena hain zuzen ere ekainean lortu duela, eta hurrengo hilabeteetan


²⁰ 2023ko lehen hiruhilekoan Loiuko aireportua 2019ko hiruhileko berdineko erregistrotik soilik 1.657 bidaiarira geratu zen.

²¹ Atzera egin behar da 2019ko laugarren hiruhilekora arte nazioarteko bidaiariaren pareko ekarpena aurkitzeko (% 41,2), eta atzera egin zuen 2020-2021 biurtekoan (% 15 ingurura arte), baina 2022an kuota hobetu zuen (% 34,2, urteko batezbestekoa).

²² Gaur egun, Loiuko aireportutik 62 helmugetara hel daiteke; 2019an, berriz, 56 ziren (Crónica Vasca, 2023ko uztailean 13a).

(uztaila-abuztua) finkatu beharreko joera da, tarte horretan, oro har, nazioarteko mugikortasun handiagoa baitago.

Bidaia-Loiuko aireportuan, hileroko bilakaera



Jatorriaren arabera sailkapena bidaia-Loiuko komertzialei dagokionez. bb: behin-behinekoa
Iturria: Aena

Erreferentziatzeko aireportuek berreskurapen maila desberdinak dituzte, beste faktore batzuen artean, nazioarteko segmentuaren garrantziaren arabera²³. Estatuko bi aireportu nagusiek (Madril eta Bartzelona) oraindik 2019ko bigarren hiruhilekoan baino bidaia-Loiuko bolumen txikiagoa izan dute (-% 4,9 eta -% 8,2); Sevilla (+% 2,9), Valentzia (+% 16,6) eta Zaragozaren (+% 48,8) kasuan, berriz, erregistro horiek gaitu egin dira. EAEko aireportuek dinamismo garrantzitsua izan dute, Donostia (+% 48,3) eta Gasteiz (+% 81,0) nabarmenduz -helmutagatik eta urtaro mugikortasuna handituz-; Iruñeak, berriz, behera egin du (-% 28,7).

Benchmarking bidaia-Loiuko aireportuak

	2023.I	2023.II	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa	Δ % Covid aurrekoa
Madril	13.429.176	15.059.637	12,1	16,7	-4,9
Bartzelona	9.974.051	13.142.056	31,8	15,2	-8,2
Valentzia	1.848.251	2.658.477	43,8	17,9	16,6
Sevilla	1.751.408	2.092.839	19,5	12,9	2,9
Zaragoza	151.584	177.422	17,0	6,7	48,8
G-5 batezbestekoa	---	--	24,9	13,9	11,0
BILBO	1.120.048	1.706.727	52,4	18,4	3,2
Gasteiz	52.314	94.512	80,7	42,8	81,0
Donostia	84.343	131.992	56,5	26,3	48,3
Iruñea	43.342	47.369	9,3	16,2	-28,7
G-3 batezbestekoa	---	--	48,8	28,4	33,5
G-9 batezbestekoa	---	--	35,9	19,2	17,7

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Behin-behineko datuak.
Iturria: Aena

²³ Konpainia eta ibilbide berriak gehitzea, esaterako.

Itsas garraioa

Bigarren hiruhilekoan Bilboko Portuak 8,73 milioi tonako salgaiak garraiatu ditu; 2022ko hiruhileko berdinean erregistratutakoa baino gehiago da (+% 1,3) baina 2018an lortutako erregistrorik onena baino baxuagoa²⁴ (-% 4,4). Hala, Bilboko Portua estatuko bosgarren portu nagusi modura finkatu da²⁵, % 6,2ko ekarpenarekin eta 16,5 milioi tona garraiatuarekin itxitako lehen seihilekoarekin (+% 2,8, urte artean); 2023ko hileko erregistrorik onena ekainean lortu du (3,0 milioi tona).

Bilboko Portua estatuko bosgarren portu nagusi modura finkatu da

Ontziratu gabeko likidoek Bilboko portu trafikoaren zatirik handiena hartzen dute (guztiaren % 60,9) eta bigarren hiruhilekoan jardura maila historikoki altuetan mantendu da, soilik aurreko urteko erregistroak gaitzuta (5,32 milioi tona). Horrez gain, ontziratu gabeko solidoek dinamismo garrantzitsua izan dute (+% 9,3), garraiatutako milioi bat tonako langa gaitzuta, eta salgai orokorretan izandako hobekuntza nabarmendu behar da²⁶ (+% 1,2), bestelako segmentuarekin batera²⁷ (+% 6,1). Hala ere, adierazi behar da oraindik ez dela berreskuratu pandemia aurreko trafikoa (2019) ontziratu gabeko solidoen eta salgai orokorren segmentuetan (-% 16,1 eta -% 17,6, hurrenez hurren).

Bestalde, edukiontzietan garraiatutako salgaiak atzera egin dute 2022ko bigarren hiruhilekoarekin erkatuta (-% 2,4); edukiontzien kopurua, berriz, antzeko mailetan mantendu da (% 0,0), eta bi segmentuetan 2019an lortutako balioetatik urrun egon da (-% 21,6 eta -% 21,2, hurrenez hurren). Portuak 741 ontzi kudeatu ditu, aurreko urteko zifrak hobetuz (+% 3,5) baina 2019an erregistratutako mailara iritsi gabe (-% 6,9).

Salgaiak itsasoz garraiatzea



Iturria: Estatuko Portuak.

²⁴ Bilboko Portuan 2018a jardura gehieneko ekitaldia izan zen, eta estatuko portuen kasuan, berriz, 2019a.

²⁵ Bahía de Algeciras, Valentzia, Bartzelona eta Cartagenaren atzetik, hurrenez hurren.

²⁶ Lurraldeko industria jarduerari lotuta (produktu siderurgikoak, eolikoak eta makineria, batez ere).

²⁷ Batez ere hornidura hartzen du barne.

EKONOMIA PRODUKTIBOA

Barne Produktu Gordina


2023ko lehen hiruhilekoan Bizkaiko jarduera ekonomikoak hobera egiten jarraitu du, % 2,2 eta % 0,4ko urte arteko eta hiruhileko arteko hazkundeekin, hurrenez hurren. Emaiza horiek 2022ko erregistroekin erkatuta nolabaiteko dezelerazioa islatu arren, hobekuntza nabarmena ekarri dute hasierako aurreikuspenekin erkatuta; horrek, 2023. urterako aurreikusitako hazkunde ekonomikoa gorantz berrikusi izana justifikatuko luke²⁸. Horren haritik, bigarren hiruhilekorako aurrerapen datuak (EAEko erreferentzia) hazkunde berriak iragarri ditu (+% 1,6 eta +% 0,5, urte arteko eta hiruhileko arteko tasan), urteko lehen seiuhilekoaren dinamismoa berretsiz eta joerak 2023. urteko bigarren zatian jarraitzearen esperoan.

Bizkaiko ekonomiak ondo hasi du urtea, aurreikuspenak hobetuz

Enplegua berriz ere hazi da lehen hiruhilekoan (+% 1,7 eta +% 0,2, urte arteko eta hiruhileko arteko tasan) eta lanaldi osoko baliokidetasuneko 505.230 lanpostura iritsi da. Hala, lurraldea lanaldi osoko baliokidetasuneko milioi erdi lanpostu baino gehiagoko enplegu oinarria finkatzen ari da, eta 2008ko lehen seiuhilekoan lortutako erregistro maximoetara gerturatzen ari da (lanaldi osoko baliokidetasuneko 507.136 eta 509.203 enplegu 2008ko lehen eta bigarren hiruhilekoan). 2023ko bigarren hiruhilekorako aurrerapen datuek (EAE erreferentzia) adierazi dute enpleguak berriz ere gora egin duela (+% 1,5 eta +% 0,7, urte arteko eta hiruhileko arteko tasan).

Enplegua 2008an lortutako erregistro maximoetara gerturatu da

BPG Bizkaia



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtaro eta egutegi ondorioei buruzko datu zuzenduak, bolumen kateatuko indizean, 2015eko oinarrian.

²⁸ Hasierako aurreikuspenek adierazi zuten hazkunde % 1,5 ingurukoa izango zela (EAEko erreferentzia), baina azken berrikuspenen arabera hazkunde % 2 ingurukoa izango da (BBVA Research, 2023ko ekaina).

Industria

Hala ere, lurraldeko industria jarduerak dinamismoa galdu du²⁹ eta 2023ko bigarren bihilekoan (apirila-maiatza) % 0,2ko hazkunde txikia izan du. Pandemia bukatu zenetik izandako aurrerapenik txikiena da, eta lurraldean industria jardueraren hazkunde bidea moteltzen ari dela berresten du (+% 9,4, +% 8,4, +% 6,8, +% 4,3, +% 0,9 eta +% 0,2, 2022ko lehen hiruhilekotik). Europa ingurunearekin partekatutako bilakaera da, eta industria hazkunde pixkanaka lauagoa dela islatzen du, eskaria eta eskaera berrien sarrera moteltzeak baldintzatuta.

Bizkaiko industria hazkundearen profila moteltzen ari da

Industriako azpisektore guztietan hazkunde moteldu egin da 2023ko bigarren bihilekoan, eta manufaktura industriaren (+% 1,3) eta uraren industriaren (+% 1,1) aurrerapena nabarmendu behar da, erauzketa industrien egonkortasunarekin (% 0,0) eta energia, gasa eta lurrunak izan duten atzerakadarekin erkatuta (-% 8,3).

Hala ere, adierazi behar da Bizkaia dagoeneko pandemia aurreko jardura maila berreskuratu duela (indizearen balioa 115,1 izan zen 2023ko urtarril-maiatzean eta 114,5 2019ko urtarril-maiatzean).

Industria

	Urte arteko aldakuntza tasa, %				
	2022.II	2022.III	2022.IV	2023.I	2023.II
Ekoizpen indizea	8,4	6,8	4,3	0,9	0,2
Manufaktura industria	6,5	2,2	4,9	4,0	1,3
Erauzketa industriak	31,0	-6,1	-7,5	-1,4	0,0
Energia, gasa eta lurruna	24,9	41,1	-0,2	-17,6	-8,3
Ura	-0,8	9,9	7,5	4,0	1,1

Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta. Erreferentziako aldiko agregazio indizearen urtetik urterako aldakuntza. 2023ko apiril-maiatzeko hilabeteei dagokien bigarren hiruhilekoko datuak
Iturria: Eustat

Merkatuko zerbitzuak

Bizkaiko merkatuko zerbitzuen salmentek aurreko hiruhilekoko hazkunde erritmoari eutsiz hasi dute urtea (+% 5,2) eta hobera egiten duen zortzigarren hiruhilekoa da, sektorearen berreskurapena finkatuz. Zerbitzuen sektorearen dinamismoak azpisektore ia guztien jokabide ona hartu du oinarritzat (prezio arruntetan). Hala, salmenten urte arteko igoerarik handiena administrazio jardura eta zerbitzu osagarrietan izan dute (+% 12,2) eta ondoren datoz ostalaritza (+% 9,8), jardura profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (+% 8,9) eta informazioa eta komunikazioak (+% 7,8); garraioa eta biltegiatzeak izandako beherakada orekatzen dute (-% 3,2).

Merkatuko zerbitzuen salmentek gora egin dute ondoz ondoko zortzigarren hiruhilekoz

²⁹ Produktzio Industrialaren Indizeak balio erantsi gordinaren bolumenak izandako bilakaera jasotzen du, industria sektoreko faktoreen kostuan; hortaz, industriako ekoizpen mailak neurtzen ditu, prezioa aintzat hartu gabe, eta hori beste adierazle batean biltzen da, Industriako Prezioen Indizea deitutakoa.

Hala ere, sektoreari lotutako enpleguak ez du salmenten dinamismoa partekatzen eta urtea gelditu du ³⁰ (-% 0,1).

Enpleguak, bitartean,
behera egin du

Merkatuko zerbitzuen salmentak



Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta (prezio arruntak). Uneko urteko behin-behineko datuak. 2015eko oinarria
Iturria: Eustat

Analisi berdina prezio konstanteetan eginez gero (prezioaren eragina kenduta) -jardueraren martxaren adierazle aproposa da zinez- sektoreen salmenten igoera berresten da (+% 5,8); jasotako azpisektoreek bilakaera bera izan dute, eta garraio eta biltegiatze jarduerari lotutako salmenten dinamismoa nabarmendu behar da, hobera egin baitu prezio konstanteetan, eta positibo bihurtu da (+% 8,5).

Merkatuko zerbitzuak

Urte arteko aldakuntza tasa, %

	(prezio arruntak)			(prezio konstanteak)		
	2022.III	2022.IV	2023.I	2022.III	2022.IV	2023.I
Salmentak	13,0	5,2	5,2	9,8	6,1	5,8
Garraioa eta biltegiatzea	12,7	4,4	-3,2	13,7	16,1	8,5
Ostalaritza	27,1	13,3	9,8	17,8	6,0	2,9
Informazioa eta komunikazioak	9,8	2,2	7,8	8,0	0,1	3,8
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta tekn.	0,7	2,2	8,9	-3,4	-1,5	4,4
Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak	25,4	7,8	12,2	17,8	3,5	7,2
Landunen indizea	1,0	0,5	-0,1	--	--	--

Bizkaiko datuak, egutegi ondorioekin zuzendutakoak, eta enplegu datuak, urtaroko efektua kenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak. 2015eko oinarria
Iturria: Eustat

³⁰ Adierazi behar da betetzeko zailtasunak dituzten okupazio profesionalak jasotzen direla (giza baliabiderik eza).

Kanpoko merkataritza

Bigarren bihilekoan izandako bilakaerak (apirila-maiatza) lurraldean izandako esportazio bolumenen beherakada erakusten du (-% 16,0, urte artean), 1.200 mila tonarekin; 2020ko bihileko berdinean izandako zifra baino baxuagoa da (-% 5,6). Bestalde, inportazioek gora egiten jarraitzen dute (+% 21,8, urte artean) eta pandemia aurreko maila berreskuratu dute (-% 0,5, 2019arekin alderatuta), inportatutako 3.255 mila tonarekin. Hala ere, 2023ko lehen bost hilabeteen balantzeak inportazioen bolumenen igoera erakusten du (+% 16,2); esportazioetan, berriz, beherakada egon da (-% 7,0).

Beherakada esportazioen bolumenean, eta inportazioen gorakada Bizkaian

Osagai ez energetikoak bilakaera partekatzen du³¹, baina lurraldearen kanpo jarduerak baino aldakortasun txikiagoa izan du, esportazioen bolumenean (-%9,0 eta -% 16,0) zein inportazioen bolumenean (+% 6,9 eta +% 21,8). Eraitza horrek energiaren osagaiari lotutako aldakortasun handiagoa adieraziko luke.

Bestalde, lurraldean egindako esportazioen eta inportazioen moneta balioak bi segmentuek partekatutako galera erakusten du, eta beherakada hori pixka bat handiagoa da esportazioen kasuan (-% 19,2 eta -% 8,2). Bizkaiko kanpo jarduerari lotutako moneta balioaren beherakada hori, neurri handi batean, prezioen moderazioari zor zaio, 2022an nagusitutako inflazio gorakadari dagokionez. Hala, esportatutako tona bakoitzaren batez besteko prezioa 1.607 eurokoa izan da; inportatutako tona bakoitzeko, berriz, 845 eurokoa.

Kanpoko merkataritza; moneta balioa eta bolumena.

	2022.III	2022.IV	2023.I	2023.II ¹	Urte arteko Δ (%)	
					2023.I	2023.II ²
Bolumena (milaka tona)						
Esportazioak, guztira	2.210,7	2.322,5	2.137,5	1.200,1	-1,0	-16,0
Esportazio ez energetikoak	1.155,7	1.156,9	1.279,0	787,0	3,0	-9,0
Inportazioak, guztira	4.266,1	4.715,6	4.169,3	3.254,9	12,2	21,8
Inportazio ez energetikoak	1.197,0	1.304,3	1.291,0	940,7	-3,0	6,9
Balioa (milioi euro)						
Esportazioak, guztira	3.251,9	3.270,9	3.404,0	1.928,8	11,4	-19,2
Esportazio ez energetikoak	2.409,3	2.543,9	2.903,7	1.724,3	17,4	-12,4
Inportazioak, guztira	4.993,6	4.615,1	4.151,3	2.751,9	14,4	-8,2
Inportazio ez energetikoak	2.374,4	2.371,4	2.454,9	1.565,5	11,5	-4,9

Bizkaiko datuak 1. Apiril-maiatzari dagokion behin-behineko datua 2. Aurreko urteko apiril-maiatzaren aldean
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Lurraldeko³² kanpo jardueraren saldoa defizitarioa da oraindik, baina superabita dauka osagai ez energetikoan, eta estaldura tasa³³ % 70,1 eta % 110,1 da, hurrenez hurren. Halaber,


³¹ Bizkaiko manufakturen industriak egindako kanpoko merkataritzarekin estuen lotutakoa da.

³² Esportazioen eta inportazioen arteko aldea.

³³ Esportazioek inportazioen gainean duten pisua.

adierazi behar da kanpo jarduera ez energetikoak garrantzi handiagoa daukela moneta terminoetan (% 89,4 eta % 56,9, esportazio eta inportazioetarako) bolumenean baino (% 65,6 eta % 28,9, esportazio eta inportazioetarako); hala, argi dago osagai ez energetikoaren batez besteko prezioa handiagoa dela (2.191 eta 1.664 euro/tona) osagai energetikoarena baino (495 eta 513 euro/tona).

Esportazio eta inportazio ez energetikoen ratioa



Bizkaiko datuak 2023ko apiril-maiatzeko hilabetei dagokien bigarren hiru hilekoko datuak.
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Hala, esportazioek lurraldearen BPGn duten garrantzia finkatu du Bizkaiak, 2023ko lehen hiru hilekokoan % 30 inguruan kokatu baitira³⁴, pandemia aurreko erregistroak gaindituz -% 25 ingurukoa-. Hobekuntza honek adierazi du esportazioen balio ekonomikoak hazkunde erlatibo handiagoa izan duela lurraldeko BPG terminoetan baino.

Esportazioaren ratioa BPG-rekin alderatuta (%)



Bizkaiko datuak
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta Hiruhilekoen kontuak (Eustat; oinarria: 2015)

³⁴ Txosten hau egin den unean eskuragarri egon den informazio berriena.

ENPRESA JARDUERA

Sozietate berriak

Bilbok 215 sozietate berri izan ditu 2023ko bigarren hiruhilekoan (+% 8,6 urte artean), urte hasiera positiboa berretsiz: hiribilduak 2023ko lehen sei hilekoan sortutako 443 sozietate ditu, 2022ko eta 2019ko erregistroak gaindituz (+29 eta +11 sozietate) eta pandemia aurreko erregistrorik onenera gerturatuz (2018, soilik 8 sozietate gutxiago).

Sozietate berrien sorrerak dinamismo garrantzitsua hiribilduan

Jarduera sektore guztiek dinamismo garrantzitsua izan dute sozietate berriak sortzeari dagokionez 2023ko bigarren hiruhilekoan, eta zerbitzuen sektorea nabarmendu behar da (175 sozietate berri, +% 6,1 urte artean); ondoren datoz eraikuntza (28 sozietate berri, +% 75,0) eta industria eta energia (12 sozietate berri, -% 29,4).

Merkataritza sozietate berriak



Iturria: Merkataritza Erregistroa

Merkataritza sozietate berriak

	2022.III	2022.IV	2023.I	2023.II	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Sozietate berriak	144	171	228	215	-5,7	8,6
Lehen sektorea	0	0	0	0	--	--
Industria eta energia	4	38	30	12	-60,0	-29,4
Eraikuntza	21	13	20	28	40,0	75,0
Zerbitzuak	119	120	178	175	-1,7	6,1

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Sozietate eratuen kopururik handiena izan duten jarduera adarrak eraikuntza, merkataritza eta konponketak, ostalaritza, jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, informazioa

eta komunikazioak eta higiezin alorreko jarduerak izan dira; orotara, hiribilduan eratutako sozietate berri guztien % 73 hartzen dute.

Sozietate gehien sortu dituzten jarduerak (2023ko II. hiruhilekoa)

Eraikuntza	28
Merkataritza eta konponketa	27
Ostalaritza	27
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	26
Informazioa eta komunikazioak	26
Higiezin alorreko jarduerak	23

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Desegindako sozietateak

Bestalde, hiribilduan desegindako sozietateen kopuruak behera egin du (88ra arte), 100 sozietateren langa gainditu dituzten bi hiruhileko eta gero. Jarduera sektore guztiek partekatzen dute beherakada hori, baina desegindako sozietateen kopururik handiena zerbitzuen sektoreak izan du (74), eta, zehazki, jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (25 sozietate deseginda).

Desegindako sozietateen kopuruak behera egin du

Desegindako sozietateak

	2022.III	2022.IV	2023.I	2023.II	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Desegindako sozietateak	66	105	103	88	-14,6	-4,3
Lehen sektorea	0	1	0	0	--	--
Industria eta energia	4	9	5	2	-60,0	-60,0
Eraikuntza	8	12	11	12	9,1	-36,8
Zerbitzuak	54	83	87	74	-14,9	10,4

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Sozietate gehien desegin dituzten jarduerak (2023ko II. hiruhilekoa)

Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	25
Merkataritza eta konponketa	23
Eraikuntza	12
Higiezin alorreko jarduerak	6
Ostalaritza	5
Hezkuntza	6

Iturria: Merkataritza Erregistroa

II. hiruhilekoa 2023

	Adierazleak		
	Azken datua	Δ Urte artekoa (%)	Aldia
LAN MERKATUA			
Biztanleria aktiboa (milakotan)**	158,8	-7,6	II. hiruh.
Landunak (milakotan)**	146,2	-4,0	II. hiruh.
Langabeak (milakotan)**	12,6	-35,4	II. hiruh.
Langabezia tasa (%)**	7,9	-3,4*	II. hiruh.
Langabe erregistratuak (pertsona kop.)**	20.658	-4,9	ekaina
Afiliatuak (kop.)	184.966	1,9	ekaina
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	28.656	-5,9	II. hiruh.
MERKATARITZA			
Pertsona afiliatuak	19.264	-0,8	ekaina
Kontsumo prezioak (adierazlea)***	112,7	2,3	ekaina
TURISMOA			
Ostatu gauak (kop.)	586.478	10,1	II. hiruh.
Bidaariak (kop.)	301.909	9,1	II. hiruh.
Batez besteko egonaldia (ostatu gauak/bidaariak)	1,94	0,02*	II. hiruh.
GARRAIOA			
Salgaien itsas garraioa (mila tona)	8.734,5	1,3	II. hiruh.
Bidaariak airez garraiatzea	1.706.727	18,4	II. hiruh.
ENPRESA JARDUERA			
Industria produkzioa (indizea)***	117,5	0,2	apiril-maiatza
Merkataritza sozietate berriak (kop.)	215	8,6	II. hiruh.
Desegindako sozietateak (kop.)	88	-4,3	II. hiruh.

* Ehuneko puntuak.

** Bilbon bizi den populazioa.

***Bizkaiari dagokion adierazlea. KPIren bilakaera, erreferentziatzeko aldiko agregazio indizean oinarrituta. Oinarritzko urtea aldatzea (2021) Iturria: Geuk egindakoa, erakunde hauen datuetan oinarrituz: Eustat, SEPE, Lanbide, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, EIN, Estatuko Portuak, Aena eta Merkataritza Erregistroa.